

Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

6125

290/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa den ekainaren 19ko 4/2008 Legeak babesarako eta laguntzarako sistema arautzen du III. tituluan, zein ekintza terroristen biktimek dituzten beharrian guztiei aurre egiteko asmatu baitzen.

Legeak zehaztu eta garatu egiten ditu sistema horrek barne hartzen dituen prestazioak; hala ere, aldeak daude erregelamendu garapenarekiko prestazioei dagozkien diru-mugak ezartzeari edo prozedura- eta antolaketa-gaiei dagokienez. Arlo horiek garatuko ditu dekretu honek, eta ekainaren 19ko 4/2008 Legean aurreikusitako erregimena osatzen da horrekin.

Dekretu honen bidez, halaber, terrorismoaren biktimak lagundu, babestu eta aitortzeko modalitate zenbait garatzen dira, zeinek ekainaren 19ko 4/2008 Legean aurreikusitakoak baitira. Nahiz eta modalitateok ez diren azaltzen biktimen babes eta laguntza integralaren sistemari Legeak eskaintzen dion tituluan, bai helburu bera dutela, eta horrelaxe ikusten da prozesu juridikozionalan biktimei laguntza juridikoa emateko neurriekin.

Ondorioz, Herrizaingoko sailburuaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren, Justiziako eta Herri Administrazioiko sailburuaren, Etxebizitza, Herrilan eta Garraioetako sailburuaren, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren, eta Osasun eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak txostena emanda, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko azaroaren 9ko bileran aztertu eta onartu ondoren,

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

6125

DECRETO 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

La Ley 4/2008, de 19 de junio, de reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo, regula en su Título III un «sistema de protección y asistencia» interrelacionado pensado para atender todas y cada una de las necesidades de las víctimas de acciones terroristas.

Aún cuando la norma legal define y desarrolla las prestaciones que abarca tal sistema, en ocasiones difiere al desarrollo reglamentario cuestiones tales como la determinación de los límites económicos de las prestaciones o cuestiones de procedimiento y organización, que son las que el presente reglamento pretende desarrollar completando el régimen jurídico previsto en la propia Ley 4/2008, de 19 de junio.

Igualmente se aprovecha la norma para desarrollar algunas modalidades de asistencia, protección y reconocimiento a las víctimas del terrorismo previstas en la Ley 4/2008, de 19 de junio, que aunque formalmente no aparezcan contempladas en el Título de la Ley dedicado al sistema de protección y asistencia integral a las víctimas, si persiguen una misma finalidad, tal y como acontece con las medidas destinadas a la asistencia jurídica a las víctimas en los procesos jurisdiccionales.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Interior; de Educación, Universidades e Investigación; de Justicia y Administración Pública; de Vivienda, Obras Públicas y Transportes; de Empleo y Asuntos Sociales; y de Sanidad y Consumo, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y tras deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de noviembre de 2010,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua.**– Helburua eta eremua.

1.– Honako hau da dekretu honen helburua: biktimen babes eta laguntza integralerako sistema garatzea, zein Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa den ekainaren 19ko 4/2008 Legeko III. tituluan baitago jasota; eta, halaber, terrorismoaren biktimen babes eta laguntzarako beste neurri batzuk.

2.– Biktimen babes eta laguntza integralerako sistemak –dekretu honetan araututakoak– ekintza terroristen ondorio kaltegarriak erreparatzea helburu duten prestazio eta neurri administratiboak arautzen ditu. Itzul dakiekeen guztia itzuli behar zaie biktimei, eta laguntza integrala eskaini gizartean bizitza normala egin ahal izan dezaten arlo orotan.

3.– Babes eta laguntza integralerako sistema indarrean jartzeko eremua ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 2. artikuluan zehazten da, eta ekintza terroristen biktimia zuzenei –eta horien familiarreko eta gertukoie– dagozkie eskubideak eta prestazioak, kasu bakoitzari egokitzen zaion eran.

4.– Titulu honetan jasotako prestazio eta laguntzak bateragarriak dira interesdunek beste administrazio batzuetatik eskura ditzaketean laguntzekin, betiere horien batuketak ez badu kaltearen zenbatekoa gainditzen, diruz lagundu behar den jardura ez badu gainfinantzatzen, edota esleitzen den laguntza-modalitate zehatzaren edukia ez badu bikoizten.

2. artikulua.– Abiaturuak.

1.– Laguntza integralerako sistema aplikatzeak, ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 5.2 artikulua araberak, honako printzipio eta helburu hauek bete behar dakar, batik bat:

a) Biktima –ahal den neurrian– kaltea jaso baino lehenago zuen egoerara itzularaztea.

b) Biktimak lehengo askatasuna eta nortasuna, baita giro familiar, sozial eta politikoa ere berreskuratze ahaleginak egitea.

c) Biktima bere ohiko bizilekura itzultzeko eta berriro ere baldintza egokietan lanean hasteko ahaleginak egitea; edo, kasu bada, egoitzaz aldatzeko eta giro egokian laneratzeko ahaleginak egitea.

d) Babes- eta laguntza-sistemako prestazioak biktimaren egoerak eskatzen duen bizkortasunarekin esku-ratuko direla bermatzea.

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES**Artículo 1.**– Objeto y ámbito.

1.– Es objeto del presente Decreto el desarrollo del sistema de protección y asistencia integral a las víctimas previsto en el Título III de la Ley 4/2008, de 19 de junio, de reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo, así como de otras medidas de protección y reconocimiento a las víctimas del terrorismo.

2.– El sistema de protección y asistencia integral a las víctimas previsto en este Decreto regula las prestaciones y medidas administrativas destinadas a la reparación de los efectos dañosos de las acciones terroristas, tratando de garantizar la restitución completa de lo restituible y la asistencia integral a las víctimas en todos los aspectos necesarios para la recuperación de su vida social normalizada.

3.– El ámbito de aplicación del sistema de protección y asistencia integral es el definido en el artículo 2 de la Ley 4/2008, de 19 de junio, correspondiendo los derechos y prestaciones a las víctimas directas de las acciones terroristas y a sus familiares o allegados en los términos que se expresan en cada caso.

4.– Las prestaciones y ayudas contempladas en este Título son compatibles con cualesquiera otras ayudas que los interesados puedan recibir de otras administraciones, siempre que la suma de las mismas no suponga la superación del importe del daño, sobrefinanciación de la actividad a subvencionar o duplicación del contenido de la concreta modalidad de ayuda que se conceda.

Artículo 2.– Principios.

1.– La aplicación del sistema de asistencia integral atenderá prioritariamente a los siguientes principios y finalidades de conformidad con el artículo 5.2 de la Ley 4/2008, de 19 de junio:

a) Procurar, en la medida de lo posible, la devolución a la víctima a la situación anterior a la provocación del daño.

b) Favorecer el restablecimiento de la libertad, identidad, vida familiar, social y política de la víctima.

c) Promover el regreso de la víctima a su lugar de residencia y la reincorporación a su empleo en condiciones adecuadas o, en su caso, el cambio de residencia y una política favorable a su integración laboral.

d) Garantizar la accesibilidad a las prestaciones del sistema de protección y asistencia con la máxima cercanía requerida por la situación de la víctima.

e) Biktimaren eguneroko gora beherei kasu egitea eta ongizate egoera lortzea arlo horietan ekintza terroristak eragindako kalteak arintzeko.

2.– Prozedurak instruitu eta ebazterakoan, printzipio hauek hartuko dira aintzat:

a) Biktimen aldeko trataturako printzipioa, kontuan izanik bizi dezaketen egoera bereziki dela ahula eta berdintasunik gabea; eta ahaleginak egitea prozedurak trauma gehiago ez sortzeko.

b) Bizkortasun printzipioa, laguntza edo prestazioen aintzatespena luzatu edo eragozten duten formazko izapideak saihestuz. Horrelakoetan ez zaio agiririk eskatuko interesdunari egintza nabarmenak edo zenbait inguruabar frogatzeko, betiere inguruabar horien froga kasuan diharduen administrazioaren artxibo edo aurrekarietan jasota badago.

c) Hurbiltasun printzipioa; eta horretarako ahaleginak egin beharko dira Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza izan dadin –dekretu honek jasotako eran– lehenetsuna duena biktimekiko harreman zuzena izateko, eskabideak aurkezteko eta prestazioak eta laguntzak ematen dituzten kudeaketa erakundeekiko harremanetarako.

d) Erakunde-arteko elkarlan-printzipioa eta erakunde mailako leialtasuna.

3. artikulua.– Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

Herrizaingo Sailean txertatutako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza EAeko Administrazio orokorreko organoa da, eta bere esku daude honakoak: Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa den ekainaren 19ko 4/2008 Legean araututako erreparazio- eta laguntza-prestazioetarako eskabideak koordinatu eta, hala behar izanez gero, izapidetu eta ebaztea. Helburu hori lortze aldera, lege horretako 25.1 artikuluan aurreikusitako eskumenak dagozkio.

2.– Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, ekainaren 19ko 4/2008 Legeko hirugarren gehigarriko xedapenaren arabera, berehalakoa jarduteko protokoloa landuko du, non jasota utzi beharko diren, alde batetik, sorospen psikologikoa, eta bestetik, lege horretan ezarritako eskubide eta onurei eta ekintza terroristek eragindakoei onuraren bat dakarkien arauekin lotura duten formazioa eta orientazioa.

3.– Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak laguntza zuzena eta pertsonalizatua eskaintzen die biktimei, honako arlo hauetan: babes eta laguntza integralaren sistema osatzen duten prestazio, zerbitzu eta baliabideak; beste administrazio batzuetan eskuagarri dituzten baliabideen berri ematea; orientazioa eskaintzea dituzten premien arabera, eta aholkuak eskainiko dizkie behar diren izapideei eta horiek be-

e) Atender a los distintos ámbitos que afectan a la vida cotidiana de la víctima, para la creación de condiciones de bienestar que palién el daño ocasionado por el acto terrorista en estos ámbitos.

2.– La instrucción y resolución de los procedimientos estará presidida por los principios siguientes:

a) Principio de trato favorable a las víctimas, teniendo en cuenta la especial situación de vulnerabilidad y desigualdad en que puedan encontrarse, procurando que el procedimiento no dé lugar a nuevos procesos traumáticos.

b) Principio de celeridad, evitando trámites formales que alarguen o dificulten el reconocimiento de las ayudas o prestaciones. En este sentido, no se requerirá aportación documental al interesado para probar hechos notorios o circunstancias cuya acreditación conste en los archivos o antecedentes de la administración actuante.

c) Principio de intermediación, para lo cual se procurará que la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo constituya el cauce preferente de relación directa con las víctimas, de presentación de solicitudes y de intermediación con las instituciones gestoras de las distintas prestaciones y ayudas, que contempla el presente Decreto.

d) Principio de colaboración interinstitucional y lealtad institucional.

Artículo 3.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo.

1.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo del Departamento de Interior es el órgano de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente para coordinar y, en su caso, tramitar y resolver las solicitudes de las prestaciones reparadoras y asistenciales reguladas en la Ley 4/2008, de 19 de junio, de reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo, correspondiéndole a tal efecto las atribuciones previstas en el artículo 25.1 de la misma.

2.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo elaborará, de conformidad con la Disposición Adicional Tercera de la Ley 4/2008, de 19 de junio, un protocolo de actuación inmediata que contemple tanto la asistencia psicológica como la información y orientación en relación con los derechos y beneficios establecidos en esa Ley y con aquellas otras normas que concedan algún tipo de beneficio a los afectados por las acciones terroristas.

3.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo dispensa asistencia directa y personalizada a las víctimas con relación a las prestaciones, servicios y recursos integrantes del sistema de protección y asistencia integral; les facilita información de otros recursos existentes en otras Administraciones; procura su orientación en función de sus necesidades, asesorándolas sobre los trámites necesarios y su cumpli-

tezeari buruz, eskumena duten organoetara bidaliz, hala behar izanez gero.

4.– Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagokio dekretu honetako kapitulu eta paragrafoetan aurreikusitako erreparatze- eta laguntza-prestazioetarako eskabideak izapidetu eta ebaztea, honako arlo hauetan:

a) Kalte materialen ordainerako jarduerak, II. kapitulu jasotakoak;

b) Kalte materialak prebenitzeko laguntzak, III. kapitulu jasotakoak;

c) Laguntza juridikorako laguntzak, IV. kapitulu jasotakoak;

d) 22. artikuluan jasota diru-laguntzak, protesiak ezartzeak sortutako gastuak finantzatzeko, eta 23. artikuluan eta V. kapitulu hurrengoetan jasotako finantzazioa, profesional pribatuek emandako tratamendu psikologikoa finantzatzeko.

e) Beste gastu akademiko batzuk ordaintzeko laguntzak, VI. kapitulu 29. artikuluan jasotakoak.

f) 37. artikuluan jasotako diru-laguntzak, behin-behineko etxebizitza alokatzeko gastuak finantzatzeko.

5.– Aipatutako zuzendaritzari dagokio, halaber, dekretu honetako X. kapitulu aurreikusitako espedienteak izapidetzea.

6.– Eusko Jaurlaritzako beste organo batzuk lantzen dituzten xedapen arautzaileen, programen eta jarduera-planen proiektuetan parte hartuko du Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak. Dekretu honetako VI., VII., VIII., eta IX. kapituluetan jasotako gai buruzkoak izango dira proiektuok.

7.– V., VI., VII., VIII. eta IX. kapituluetan araututako onura eta prestazioen errekonozimendurako beharrezkoa izango da Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren txostena, zein loteslea izango baita biktima edo onuradun izatearekiko.

8.– Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu sorospena helburu duten beste prestazio eta laguntza batzuk eskuratzeko, hala sorospen psikosoziala, nola zigor-arloko judizio epaiketatarako biktimarekin batea joatea; eta hori, beste erakunde batzuen edo organizazio publiko edo pribatuen bidez gauzatuko du.

9.– Terrorismoaren biktimen babes eta sorospen integralerako sistemaren funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa gauzatuko ditu Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak.

Urtero txosten bat gauzatuko du horretarako, eta Eusko Jaurlaritzako sailek eta beste erakunde batzuk terrorismoaren biktimekin lotutako arloetan burututako jardueri buruzko (ikerketa, sensibilizazioa, prebentzioa, arreta, sorospena eta errekupezioa) ar-

mentación, y derivándolas, en su caso, a los órganos competentes.

4.– Corresponde a la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo la tramitación y resolución de las solicitudes de prestaciones reparadoras y asistenciales previstas en los siguientes capítulos y apartados de este Decreto:

a) Las actuaciones para el resarcimiento por daños materiales del Capítulo II;

b) Las ayudas para prevención de daños materiales del Capítulo III;

c) Las ayudas para la asistencia jurídica del Capítulo IV;

d) Las ayudas económicas para la financiación de gastos por implante de prótesis contemplados en el artículo 22 y la financiación del tratamiento psicológico prestado por profesionales privados del artículo 23 y siguientes del Capítulo V.

e) Las ayudas para sufragar otros gastos académicos contempladas en el artículo 29 del Capítulo VI.

f) Las ayudas económicas para la financiación de los gastos de alquiler de vivienda provisional contempladas en el artículo 37.

5.– Igualmente le corresponde la tramitación de los expedientes previstos en el Capítulo X de este Decreto.

6.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo participará en la elaboración de los proyectos de disposiciones normativas, programas y planes de actuación que se elaboren por otros órganos del Gobierno Vasco relativos a las materias contenidas en los capítulos VI, VII, VIII y IX de este Decreto.

7.– El reconocimiento de los beneficios y prestaciones reguladas en los capítulos V, VI, VII, VIII y IX requerirá de informe preceptivo de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo, que será vinculante respecto a la concurrencia de la condición de víctima o beneficiario.

8.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo arbitrará las medidas precisas para procurar otras prestaciones y ayudas de carácter asistencial, tales como la asistencia psicosocial o el acompañamiento personal a los juicios penales, por medio de otras instituciones u organizaciones públicas o privadas.

9.– La Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo efectuará el seguimiento y evaluación del funcionamiento del sistema integral de protección y asistencia a las víctimas del terrorismo.

A tal fin elaborará un informe anual, para lo cual recopilará la información relativa a las actuaciones llevadas a cabo por los distintos Departamentos del Gobierno Vasco y otras instituciones en materias relacionada con la víctimas del terrorismo, en lo que se

gibideak eta horiei egindako jarraipena eta ebaluazioa bilduko ditu.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluari, Jaurlaritzaren Kontseiluari eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaie txosten hori.

II. KAPITULUA
KALTE MATERIALEN
ORDAINERAKO JARDUERAK

LEHENENGO ATALA
BALDINTZA OROKORRAK

4. artikulua.– Arau orokorrak.

1.– Kalte materialak erreparatzeko laguntzak ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 11. artikuluan eta hurrengoetan –baita kapitulu honetan– ezarritakoaren arabera esleituko dira.

2.– Aditza emandako prestazio eta laguntza bakoitzerako aurreikusitako berezitasunez gain, honako baldintza hauek ere bete beharko dira, orokortasunez:

a) Ekintza terroristak Euskal Autonomia Erkidegoan jazotakoak izan daitezela.

b) Kalteak ez daitezela izan izaera publikoko –edo partaidetza publikoa gehiengoa den– entitate, korporazio edo erakundeetako –nazionalak zein atzerrikoak– ondasunetan jazotakoak.

c) Kaltetutakoak hitza eman dezala bidezkoak diren ordain-ekintzak burutuko dituela, eta jakinarazi egingo dituela laguntza esleitzeko kontuan izandako baldintzetan izandako ezein aldaketa, eta, batik bat, beste administrazio edo ente publiko edo pribatuaren batek emandako laguntzak, baldin eta kaltearen zenbatekoa gainditzen badute; hitza mean beharko dute, halaber, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak sustatutako fiskalizazio jarduerak ahalbidetzeko.

3.– Ordaindu beharreko zenbatekoa tasatutako kalteen zenbatekoaren eta eragina nozitu duen kaltetutako ondasunen aseguru-estalduraren kontura jaso behar duen zenbatekoaren artean dagoen aldea izango da, betiere aseguruurik badago.

4.– Eskatzaile bakoitzeko eta gertakari edo ezbehar bakoitzeko jaso daitekeen gehienezko zenbatekoa, ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 11.4 artikulua araber, 100.000 euro da, kapitulu honetan aurreikusitako edozein laguntzatarako.

5.– Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzak aseguru-kontratuetatik eratorritako edozein ordain subsidiarioak dira, eta, aseguruek egindako kalte-ordainak egonez gero, kalte-ordain horien balioaren zenbateko berdinean murriztuko dira.

refiere a la investigación, sensibilización, prevención, atención, asistencia y recuperación de las víctimas, así como el resultado de su seguimiento y evaluación.

Dicho informe se remitirá al Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo, así como al Consejo de Gobierno y al Parlamento Vasco.

CAPÍTULO II
ACTUACIONES PARA EL RESARCIMIENTO POR
DAÑOS MATERIALES

SECCIÓN PRIMERA
REQUISITOS GENERALES

Artículo 4.– Reglas generales.

1.– La concesión de las ayudas para la reparación por daños materiales se regirán por lo previsto en el artículo 11 y siguientes de la Ley 4/2008, de 19 de junio y en el presente Capítulo.

2.– Sin perjuicio de las peculiaridades previstas para cada una de las prestaciones y ayudas contempladas, será necesario, con carácter general, que se cumplan los siguientes requisitos:

a) Que las acciones terroristas se hayan cometido en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

b) Que no se trate de daños acaecidos en bienes de entidades, corporaciones u organismos nacionales o extranjeros de carácter público o que se encuentren mayoritariamente participados por ellos.

c) Que el afectado se comprometa a ejercitar las acciones de resarcimiento procedentes, así como a comunicar toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, y en particular la concesión de cualesquiera otras ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados que supongan superar el monto en el que se haya cifrado el daño y, a facilitar cuantas actuaciones de fiscalización se promuevan por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

3.– La cantidad resarcible será la diferencia entre el importe de los daños tasados y la cantidad que el afectado deba percibir con cargo a la cobertura del seguro que, en su caso, tengan los bienes dañados.

4.– El importe máximo a recibir por hecho o siniestro y solicitante, de conformidad con el artículo 11.4 de la Ley 4/2008, de 19 de junio, será de 100.000 euros por cualesquiera de las ayudas previstas en este Capítulo.

5.– Las ayudas contempladas en este Capítulo tienen carácter subsidiario respecto de cualquier resarcimiento derivado de contratos de seguro, reduciéndose en cuantía igual al valor de dichos resarcimientos o indemnizaciones, de concurrir éstos.

5. artikulua.– Kalteak etxebizitzetan.

1.– Etxebizitzak lehen zuen bizigarritasuna berreskuratu ahal izateko, bertako egituran, instalazioetan eta altzarietan jasandako kalteen balioa ordainduko da, baina kanpo geratuko dira luxuzko izaera duten elementuak. Erreparazioei ekiteko beharrezkoak diren ikerketetatik, proiektuetatik, baimenetatik eta, oro har, dokumentu guztietatik eratorritako gastuak ere barne daude.

Jabetza horizontalaren araubidearen menpe dauden etxebizitzaren elementu komunetan eragindako kalteen balioa ere ordainduko da. Horretarako, eraikineko elementutzat joko dira garajeak edo eraikinean dauden bestelako egoitzak.

2.– Erreparazioaren zenbatekoa etxebizitzaren jabetza dutenei ordainduko zaie, edo bestela, erreparazioa legitimoki egin edo agindu duten errentariei edo okupatzaileei.

3.– Eraginpeko ondasun higiezinetan egindako kalteak kalkulatu ahal izateko, erreparazioaren balioa hartuko da kontuan, eta ez da inolako zenbatekorik kenduko erabileragatik edo kontserbazio-egoeragatik. Inola ere ez da sartuko laguntzaren barruan aurrekoaren hobekuntza.

Ondasun higiezinetan sortutako kalteen balioa zehaztu ahal izateko, kontuan edukiko da eragindako ondasunek kaltea jasan aurreko unean zeukaten benetako balioa.

4.– Ohiko etxebizitza osorik eta behin betiko galduz gero, ezinezkoa delako erreparatzea edo horretarako beharrezkoak diren obraren kostuak eraikinaren une horretako balioaren % 50 gainditzen duelako, lursailaren balioa alde batera utzita, honelakoa izango da ordaina:

a) Jabeak antzeko ezaugarriak dituen beste etxebizitza bat erosi edo galdutakoa berriz eraiki nahi badu, lehenengo paragrafoan aurreikusitako ordaina galdutako ondasunaren benetako balioa izango da 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ondorio horietarako ez da aplikatuko dekretu honetako 4.4 artikuluan aipatzen den muga.

b) Pertsonak ez badu hartu gura beste etxebizitza bat jabetzan, urtero funts galdurako diru-laguntza bat jaso ahal izango du beste etxebizitza bat alokatzeko, gehienez ere 20 urterako; eta bizi behar duen autonomia-erkidegoko udalean alokairua batez beste kostatzen dena hartuko da erreferentziatzat, aurreko egoerarekin alderatuta galerarik izan gabe. Ondorio horietarako ere ez da aplikatuko dekretu honetako 4.4 artikuluko muga.

c) Etxebizitza bateko okupatzailea, gozamenerako, erabilerarako edo bizitzeko eskubideei jarraiki, urtero diru-laguntza bat jaso ahal izango du, itzultzerik gabekoa, beste etxebizitza bat alokatzeko, gehienez ere 20 urterako, eta bizi behar duen autonomia-

Artículo 5.– Daños en viviendas.

1.– Se resarcirá el valor de los daños acreditados, sufridos en la estructura, instalaciones y mobiliario que sea preciso reponer para recuperar sus condiciones anteriores de habitabilidad, excluyendo los elementos de carácter suntuario. Se incluyen igualmente los gastos derivados de los estudios, proyectos, permisos y, en general, toda la documentación necesaria para acometer las reparaciones.

Igualmente se resarcirá el valor de los daños originados en los elementos comunes de las viviendas sujetas al régimen de propiedad horizontal. A estos efectos, se entenderán como parte integrante del inmueble los garajes u otras dependencias que se encuentren en el mismo.

2.– La cuantía de la reparación se abonará a quienes ostenten la propiedad de las viviendas o a las personas arrendatarias u ocupantes que legítimamente hubieran efectuado o dispuesto la reparación.

3.– El cálculo de los daños habidos en los bienes inmuebles afectados se realizará atendiendo al valor de reparación de los mismos, sin que se deduzca cantidad alguna por su uso o estado de conservación. En ningún caso se incluirá dentro de la ayuda la mejora de lo precedente.

A los efectos de determinar el valor de los daños habidos en bienes muebles, se tendrá en cuenta el valor real de los bienes afectados en el momento inmediatamente anterior a sufrir el menoscabo.

4.– En los casos de pérdida total y definitiva de la vivienda habitual, por resultar imposible su reparación o porque el coste de las obras necesarias para ello supere el 50% del valor actual del inmueble afectado, excluido el valor del terreno, el resarcimiento se determinará de la siguiente forma:

a) Si la persona propietaria desea adquirir en propiedad otra de similares características o reconstruir la perdida, el resarcimiento previsto en el apartado 1 será el valor real del bien perdido calculado conforme a lo dispuesto en el artículo 14.4, y sin que resulte aplicable a estos efectos el límite a que se refiere el artículo 4.4 de este Decreto.

b) Si la persona no desee adquirir en propiedad, podrá recibir una subvención anual a fondo perdido para el alquiler de otra vivienda, por el tiempo máximo de 20 años, y tomando como referencia el alquiler medio en el municipio de la comunidad autónoma en el que vaya a residir sin que suponga menoscabo respecto a su situación anterior. A estos efectos no resultará de aplicación el límite del artículo 4.4 de este Decreto.

c) La persona ocupante de una vivienda, en virtud de derechos reales de usufructo, uso o habitación, podrá recibir una subvención anual a fondo perdido para alquiler de otra vivienda, por el tiempo máximo de 20 años, y tomando como referencia el alquiler

erkidegoko udalean alokairua batez beste kostatzen dena hartuko da erreferentziatzat.

5.– Ohiko etxebizitzat joko da, paragrafo honen ondorioetarako, kaltetutako pertsona urteko gutxienez sei hilabete eta egun bateko epean bizitzen den erakina. Ohiko etxebizitzat joko da, halaber, bertan urtebetez baino gutxiago bizi izan arren, bertan bizitzen hasi den egunetik denbora erdia baino gehiago egin duenean bertan.

6. artikulua.– Behin-behineko ostatua hartzea eta tokiz aldatzea.

1.– Atentatu terrorista baten ondorioz aldi baterako beren etxeak utzi behar dituzten pertsonen behin-behineko ostatuak ordaintzen lagunduko du administrazioak, etxean erreparazioak egiten diren bitartean; baita Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik igarotzean beren ibilgailuak baliogabetzen dituzten kalteak jasaten dituzten pertsonen ostatu-gastuak ordaintzen ere. Horretarako, hitzarmenak edo erabakiak sinatu ahal izango ditu beste administrazio publiko batzuekin edo ezbeharretan eta hondamendietan kaltetutakoei laguntzen dieten organizazio espezializatu-ekin. Alderdiak ostatu-gastuetarako eman beharreko laguntzaren ehunekoa eta denbora-muga ezarriko dira aipatutako hitzarmen edo erabakietan.

2.– Hitzarmenik ez badago, atentatu terrorista jasan eta konponketa obrak dirauten bitartean euren etxebizitza behin-behingo utzi behar duten pertsonen Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari laguntza eska diezaioke, behin-behineko alokatzeko etxebizitzaren alokairuaren gastuak, baita lekualdatzeko gastuak ere.

Ezbeharra izan duen etxebizitzaren antzeko beste bat alokatzeak eragindako gastuen araberakoa izango da laguntzaren zenbatekoa, eta ezbeharra gertatu den udalerrian edo udalerrri mugakideren batean ordainduko da laguntza, kaltetutako etxebizitza konpondu arte bakarrik, ez gehiagorako.

Etxebizitzarik alokatzen ez bada, eragindako ostatu batean egindako gastuak ordaindu daitezke: eguneko eta pertsonako 75 euro goitik jota, kaltetutako etxebizitza konpondu arte bakarrik eta, gehienez ere, hiru hilabete.

3.– Administrazio auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan ez duten pertsonen, baldin eta EAEn dauden bitartean jasan badute euren ibilgailuak ezertarako utzi duten ekintza terrorista, ostatuak eragindako gastuak ordaintzeko laguntza eska diezaioke Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zu-

medio en el municipio de la Comunidad Autónoma en el que vaya a residir.

5.– Se entenderá por vivienda habitual, a los efectos de este Decreto, la edificación que constituya la residencia de la persona damnificada durante un plazo igual o superior a seis meses y un día al año. Igualmente se entenderá que la vivienda es habitual en los casos de ocupación de la misma por tiempo inferior a un año, siempre que se haya residido en ella un tiempo equivalente, al menos, a la mitad del transcurrido desde la fecha en que hubiera comenzado la ocupación.

Artículo 6.– Gastos por alojamiento provisional y traslado.

1.– La Administración contribuirá a sufragar los gastos que origine el alojamiento provisional de aquellas personas que, como consecuencia de un atentado terrorista, tengan que abandonar temporalmente su vivienda mientras se efectúan las obras de reparación, así como los gastos de alojamiento de las personas que, estando de tránsito en la Comunidad Autónoma de Euskadi, sufran daños que inutilicen sus vehículos. A estos efectos, podrá celebrar convenios o acuerdos con otras administraciones públicas o con organizaciones especializadas en el auxilio o asistencia a damnificados en situaciones de siniestro o catástrofe. En los convenios o acuerdos mencionados se fijarán el porcentaje de la contribución de las partes a los gastos de alojamiento y el límite temporal cubierto por estas ayudas.

2.– En ausencia de convenio, las personas que, como consecuencia de un atentado terrorista, tengan que abandonar temporalmente su vivienda mientras se efectúan las obras de reparación, podrán solicitar de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo una ayuda para sufragar los gastos derivados del alquiler de vivienda para su alojamiento provisional, así como los gastos de traslado que ello conlleve.

El importe de dicha ayuda será el costo del alquiler de una vivienda similar a la siniestrada en el mismo municipio en que hubiera ocurrido el siniestro o en municipio limítrofe durante el estricto tiempo que sea necesario para proceder a la reparación de la vivienda afectada.

En caso de no formalizarse el alquiler, se podrán abonar los gastos de hospedaje de los afectados en un establecimiento hostelero, con un máximo de 75 euros por persona y día durante el estricto tiempo que sea necesario para proceder a la reparación de la vivienda afectada y durante un plazo máximo de 3 meses.

3.– Las personas que, no teniendo su vecindad administrativa en ningún municipio de la Comunidad Autónoma de Euskadi y hallándose en tránsito en la misma, sufran daños que inutilicen sus vehículos por un acto terrorista podrán solicitar de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo ayuda para

zendaritzari, alegia, ostatuko gastuengatik konpentsazioa eska dezakete, gehienez ere 75 euro eguneko eta pertsonako, eta kaltetutako ibilgailua konpontzeko behar den denboran bakarrik.

Euren bizilekurako lekualdatzeak eragindako gastuak ordaintzea ere eska dezakete, baldin eta ezin badute ibilgailua konpondu eta, betiere, gastu horren ordainagiriak edo fakturak aurkeztu ondoren.

7. artikulua.– Kalteak ibilgailuetan.

1.– Ibilgailu partikularretan eragindako kalteak ordaindu ahal izango dira, eta bai pertsonak edo salgaiak lurrez garraiatzeko diren ibilgailuek jasandakoak ere, baina ez jabetza publikoko ibilgailuek jasandakoak.

2.– Ibilgailua konpontzeko beharrezkoa den gastuaren araberakoa izango da ordaindu beharreko zenbatekoa, non eta ez den honen ondorengo paragrafoetan xedatutakoa.

3.– Ibilgailua guztiz suntsitu bada, edo konpontzeak ibilgailuaren balio benalaren % 30a gaintzen bada, kaltetutako ibilgailuaren ezaugarri eta erabilpen-baldintza antzekoak dituen beste bat merkatuan erosteko peritazio ofizialak ezarritako zenbatekoaren araberakoa izango da kalte-ordaina, eta, ondorio horietarako, ez da izango aplikagarria dekretu honetako 4.4 artikuluan aurreikusitako muga.

4.– Ezbeharra jasan duen ibilgailua lurreko garrai-orako denean eta kaltetutako pertsonaren ogibidea denean, laneko tresna galtzeak dakartzan galera eta kalte ekonomikoak hartuko ditu ordainak. Kalte-ordainaren zenbatekoa, helburu horretarako burututako peritazio ofizialean zehaztutakoa izango da.

8. artikulua.– Alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte-organizazioen egoitzetan izandako kalteak.

Alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte-erakundeen egoitzetan edo erlijio-kulturako egoitzetan eragindako kalteen ordainak hartzen dituenak: egoitza horietan jarduteko lehen zituzten baldintza berberak berreskuratzeko egin beharreko erreparazioen gastuak; altzariak eta kaltetutako ekipamendua berriz ipintzea barne dagoelarik.

9. artikulua.– Kalteak industria- eta merkataritza-establezimenduetan.

1.– Merkataritza-, industria- edo zerbitzu-establezimenduetako kalteen konpentsazioak hartuko dituenak: establezimendu horiek berrir martxan jartzeko konponketen balioa; jarduera aldi baterako, zati batean edo osorik eteteak establezimenduetan garututako jarduera ekonomikoen titularrei eragin dizkien galera ekonomikoak; eta, kalteei dagokienez, berariaz jasoko da zenbateko osagarri finko bat, merkataritza-

sufragar los gastos que origine su alojamiento, consistente en la compensación de los gastos derivados del alojamiento en un establecimiento hostelero, con un límite máximo de 75 euros por persona y día, durante el tiempo estrictamente necesario para proceder a la reparación del vehículo afectado.

Igualmente podrán solicitar el abono de los gastos de traslado a la localidad de origen, en caso de imposibilidad de reparación del vehículo, previa presentación de facturas o justificantes del pago de tal gasto.

Artículo 7.– Daños en vehículos.

1.– Serán resarcibles los daños causados en vehículos particulares, así como los sufridos por los destinados al transporte terrestre de personas o mercancías, salvo los de titularidad pública.

2.– La cantidad resarcible será el importe de los gastos necesarios para su reparación, salvo lo dispuesto en los apartados siguientes.

3.– Cuando se trate de supuestos de destrucción o pérdida total del vehículo, o la reparación supere en un 30% el valor venal del vehículo, la indemnización vendrá determinada por el importe establecido en peritación oficial para la adquisición en el mercado de un vehículo de similares características técnicas y condiciones de uso del dañado, sin que a estos efectos sea de aplicación el límite previsto en el artículo 4.4 de este Decreto.

4.– Cuando el vehículo siniestrado esté dedicado al transporte terrestre y constituya el medio de vida del perjudicado, el resarcimiento alcanzará los daños y perjuicios económicos causados como consecuencia de la pérdida de su instrumento de trabajo. El importe de tal resarcimiento será el determinado en la peritación oficial que al efecto se realice.

Artículo 8.– Daños en sedes de partidos políticos, sindicatos y organizaciones sociales.

La compensación de los daños producidos en las sedes de los partidos políticos, sindicatos y organizaciones sociales o lugares de culto de confesiones religiosas comprenderá las reparaciones necesarias para que recuperen las anteriores condiciones de funcionamiento, incluyendo la reposición del mobiliario y equipamiento siniestrado.

Artículo 9.– Daños en establecimientos industriales y comerciales.

1.– La compensación de los daños en establecimientos mercantiles, industriales o de servicios comprenderá el valor de las reparaciones necesarias para poner nuevamente en funcionamiento dichos establecimientos, así como, en su caso, los perjuicios económicos causados a los titulares de las actividades económicas desarrolladas en ellos como consecuencia de la paralización temporal, parcial o total de su ac-

funtsan eta bezeroen balizko galeran eragindako kalte gisa.

Behin-behinekoz bezeroak galtzearen merkataritza funtsan izandako kaltearen ordaina, honela erabakiko da: jarduera etenda emandako zazpi egunetik gorako egun bakoitzeko, izandako kalte ekonomikoaren gainean % 0,5 aplikatuz ateratzen den zenbateko gehigarria; eta muga, kalte horren % 15ean jarriko da.

2.– Behar diren izapideak burutuko ditu Administrazioak, kaltetutako alde interesik gabeko maileguak –edo ahalik eta interes txikienarekin– lortzeko, finantza-entitate publikoen bitartez edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean jarduten duten entitate pribatuen bitartez, helburua establezimendua martxan jartzea eta dauden lanpostuei eustea izanik. Helburu berarekin betiere, maileguak subsidiatzea erabaki ahal izango du.

Kreditu entitateek esleitutako mailegu kualifikatuak lortze aldera, eta unean uneko interesen subsidiazioen izapideak egite aldera, finantza-lankidetzarako hitzarmenak izenpetuko dira Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde horien artean.

BIGARREN ATALA
KALTE MATERIALEN ORDAINA
EXIGITZEKO PROZEDURA

10. artikulua.– Eskabideak.

Kalte materialengatik ordaina eskatzeko prozedura interesdunaren eskabidez hasiko da, eta ondoren aditzera emandako datu eta agiria aurkeztu beharko dira:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo bere nortasun-egiaztagiriaren kopia.
- b) Gertaeren, izandako kalteen eta horien balorazio ekonomikoaren deskripzioa.
- c) Eskatutako laguntzaren deskripzioa.
- d) Konpainia aseguratzailearen izena -eta helbidea, hala behar bada-, eta hitzartutako polizaren edo polizen zenbakia.
- e) Eskudun organoetan aurkeztutako salaketaren kopia.
- f) Aitormena, non hitza emango baitu kalteak konpontzeko behar diren egintzak burutu dituela.
- g) Beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetatik eskuratutako laguntzen zenbatekoa, hor sartuz aseguru polizen ondorio diren kalte-ordainak eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordaindu-

tividad, entre los cuales y de manera específica se establecerá una cantidad adicional fija, en concepto de daño generado en el fondo comercial y por pérdida eventual de clientela.

El resarcimiento en concepto de daño generado en el fondo comercial y por pérdida eventual de clientela consistirá en la cantidad adicional que resulte de aplicar por cada día de cierre superior a siete días de paralización de la actividad, un 0,5% sobre el perjuicio económico sufrido, con el límite del 15% de dicho perjuicio.

2.– La Administración realizará las gestiones oportunas para la consecución a favor de los damnificados de créditos sin interés, o al más bajo interés posible, a través de entidades financieras públicas o de las privadas que operen en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi y cuyo fin sea la puesta en marcha del establecimiento y el mantenimiento de los puestos de trabajo existentes. Así mismo podrá acordar la subsidiación de préstamos con el mismo fin.

Para la obtención de los préstamos cualificados concedidos por las entidades de crédito, así como para la tramitación de las subsidiaciones de intereses que en su caso correspondan, se suscribirán convenios de colaboración financiera entre el Gobierno Vasco y las referidas entidades.

SECCIÓN SEGUNDA
PROCEDIMIENTO PARA EXIGIR EL
RESARCIMIENTO POR DAÑOS MATERIALES

Artículo 10.– Solicitudes.

El procedimiento para el resarcimiento por daños materiales se iniciará mediante solicitud del interesado, y se acompañará de los datos y documentos siguientes:

- a) Copia del Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento acreditativo de su personalidad.
- b) La descripción de los hechos, los daños sufridos y su valoración económica.
- c) Descripción de la ayuda solicitada.
- d) El nombre y la razón social de la compañía aseguradora, en su caso, así como el número de la póliza o pólizas de seguro concertadas.
- e) Copia de la denuncia ante los órganos competentes.
- f) Declaración por la que se compromete a ejercitar las acciones para la reparación de los daños que procedan.
- g) Importe de las ayudas que hubiera recibido por parte de otras administraciones o instituciones públicas o privadas, incluidas las indemnizaciones derivadas de la suscripción de pólizas de seguro y las paga-

takoak; edo aitormena, horien berri emateko hitza emanaz.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko eskudun organoek arlo horretan bultzatutako fiskalizazio jarduerak eskura jartzeko konpromisoa.

i) Eskatutako laguntzaren arabera eskabide-eredu normalizatuan zehaztutako agiri berriazkoak. Eskabide-eredua www.euskadi.net.web-orrian jarriko da eskatzaile- en eskura.

11. artikulua.— Eskabideak aurkezteko epea.

Urtebetekoa da eskabideak aurkezteko gehieneko epea, kaltea gertatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

12. artikulua.— Eskumena.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagokio prozedurak izapidetu eta ebaztea, baita kapitulu honetan araututako kalte-ordain eta konponketen kalte-ordainak pagatzea ere.

13. artikulua.— Instrukzioa.

1.— Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ofizioz gauzatuko ditu alegatutako egintza edo datuak frogatzeko bidezkoak diren jarduerak. Espedientea ebazteko behar diren agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu, baita instrukzio-ekintza beharrezko- en praktika ere.

2.— Derrigorrezkotzat jotzen den datu edo agiriren bat ez badago jasota, omisio hori hamar eguneko epean zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari; eta, horrela egiten ez badu, uko egin diola uste izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.— Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Ertzaintzari edo beste organo polizial eskudunei txostena eskatuko die, non frogatu beharko den, laguntzak esleitzeko —ez beste ezertarako— lotura kausala dagoela jazotako ekintzen eta ekainaren 19ko 4/2008 Legeko 2.1 artikuluan aurreikusitako ekintza terroristen artean. Inork ez badu ekintza bere gain hartzen, honakoak aintzat hartuko dira txostena taxutzerakoan: aurrekariak batera baloratzetik zentzume- nez ateratzen dena, eta ezagutzen diren zirkunstantzi- ak, gertaera egunekoak eta ondorengoak.

4.— Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak agintari polizialei, beste administrazio publiko batzuei, Ministerio Fiskalari edo organo jurisdikzio- nalei bestelako informazioak eska diezazkieke, baldin eta behar badituzte prozedura modu egokian biderat- zeko, betiere datu pertsonalen babesa arautzen duen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Jus- tizia Administrazioak ezarritako mugei lotuz.

das por el Consorcio de Compensación de Seguros, o declaración por la que se compromete a comuni- carlas.

